



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2020

### IVAP

1. EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak  
Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVI. (46) Ikastaroa (2020-2021) egiteko matrikula-bekak ..... 2
2. Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo  
enpresetan praktikak egiteko ..... 4
3. 2020-2021eko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo  
Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketa sustatzeko diru-laguntza  
deialdia ..... 6
4. Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa  
izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María  
Leizaola 2020" saria ..... 8
5. Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak  
(toki administrazioa) ..... 10
6. Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak ..... 12



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**EVETUk hirigintzari buruz antolatzen duen ikastaroaren matrikula ordaintzeko laguntzak Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVI. (46) Ikastaroa (2020-2021) egiteko matrikula-bekak**

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez bost matrikula-gastuak ordaintzeko bost beka iragartzen baitira «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVI (46) Ikastaroa (2020-2021)» egiteko. Aipatutako ikastaroa IVAP Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen mendeko LHIEE Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatu du

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa, (BOPV, 136, 2020ko uztailaren 13koas)

Esleipena: EBAZPENA, 2020ko irailaren 9koa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez 2020-2021erako antolatu den Hirigintzako eta Lurralde Ikasketako XLVI. (46) ikastaroa egiteko matrikula-bekak esleitzen baitira. Ikastaroa Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen (IVAP) mendean dagoen LHIEE-Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (EVETU/LHIEE) antolatua da. BOPV, 183, 2020ko irailaren 16koa

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen ditu Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak. Urtero bezala, 2020-2021ko edizioan ere beka-deialdia egin da Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLVI. (46) Ikastaroaren matrikula osoa ordaintzeko bost laguni. Matrikula-beka bakoitza 2.780,00 eurokoa da (ikastaro osoa ordaintzeko besteko kopurua). Deialdiaren aurrekontua 13.900 eurokoa da.

Xedea da baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituzten graduatuek ikastaroan parte hartuko dutela bermatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan lanean diharduten pertsonen prestatzen eta birziklatzen laguntzea, hori da helburua. Eta, esan bezala, parte hartzeko aukera eman nahi zaie baliabide ekonomiko nahikorik ez baina emaitza akademiko onak dituztenei.

2020an 2 beka eman dira (biak Bizkaian), guztira 6.394 €-ko zenbatekoarekin (aurrekontuaren %46).



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Matrikula beken kopurua	5	2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hirigintzari buruzko ikastaroko ikasleentzako laguntzak, erakunde publikoetan eta/edo enpresetan praktikak egiteko**

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez erakunde edo enpresetako diruz lagundutako praktikak erregulatzen baitira eta haietan parte hartzeko deia egiten baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako «Hirigintza eta Lurralde Ikasketak XLV (45) Ikastaroa (2019-2020)» egiten duten ikasleei. (EHA 136. zk., 2020ko uztailaren 13).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa. (EHA 201. zk., 2020ko urriaren 13).

Esleipena: EBAZPENA, 2020ko urriaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez ikasleei esleitzen baitzaie Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako XLV. Hirigintza Ikastaroan aurreikusitako «erakunde edo enpresetan egitekoak den eta diruz laguntzen en praktikaldia( EHA 136. zk., 2020ko uztailaren 13).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak, 1992az geroztik, urtero eskaintzen du Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroa, eta 2019-2020 ikasturtean erakundeetan eta/edo enpresetan 300 ordu inguruko praktika-aldia antolatu zuen hirigintzaarloan 48 hilabeteko eskarmentua baino gutxiago zutenentzat. Guztira, 22.000 euroko aurrekontu-zuzkidura erabili da (Gizarte Segurantzako gastuak barne). Laguntza bakoitza ez da sekula 2.222,22 eurotik gorakoa izango.

Praktika-aldiaren helburu nagusia: Hirigintzari buruzko ikastaroa (2019-2020) egin duten ikasleek hirigintzaz ikasitakoa erakunde publikoetan eta/edo enpresetan aplikatzea, han hiru hilabeteko praktikak eginez.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Hala, harreman estuagoa lortzen da hirigintza- lurralde- eta ingurumen-arloetan langile espezializatuen beharra izan dezaketen zentro eta profesionalekin, baita erakunde publiko eta pribatuekin ere.

Ikasleek jarduera erdi-profesionala garatzen dute, eta aukera izaten dute erakunde publikoetan "in situ" ezagutzeko zertan den eta zelan kudeatzen den hirigintza. Horretarako, aholkularitza-lanetan ibiltzen dira eta proiektu profesional batean parte hartzen dute hiru bat hilabetez (2020ko urritik abendura arte). Horrek



guztiak ondorio garrantzitsuak dauzka Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroko ikasleentzat, praktika-aldia egin aurretik ez baitute eskarmenturik hirigintza-kontuetan.

Emaitzak onak izan dira. Izan ere, diruz lagundutako praktikak 9 ikaslek egingo zituztela aurreikusita bazegoen ere, azkenean, 8 ikaslek egin dituzte (7 Bizkaikoak eta 1 Gipuzkoakoa); horiei 19.143,36 € ordaindu zaizkie guztira (esleitutako aurrekontuaren % 87, 22.000 €).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Praktiketako ikasleen kopurua	9	8



### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2020-2021eko aldirako Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaietarako buruzko ikerketa sustatzeko dirulaguntza deialdia**

### 2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko apirilaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzeko 2020-2021eko aldirako bi dirulaguntza emateko merezimendu-lehiaketarako.

### 3.-Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia

Deialdia

Esleipena

### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da, Herri-Administrazioarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaietarako buruzko ikerlanak egitea eta ikerlan horiek adiera ematea, administrazioak eta gizarteak bere ekarpenak jasotzeko.

### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Deialdiak jasotzen dituen laguntza biak esleitu dira, eta bien eremua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; bata estatuko eta Europako araudia disziplina anitzetik azterketa egiteko; eta bestea, gaia legegintzako erakundeetan ikertzeko.

Une honetan, deialdiaren emaitza esleipena bakarrik izan daiteke, eta horrekin espero behar ditugu bi ikerlan dirulaguntzek jaso dituzten eremuei eta arloei dagozkionak.

Deialdiaren azken emaitzak ez ditugu edukiko 2021eko uztaila arte, burututako ikerlanak aurkeztuko direnean; eta Balorazio Batzordeak horiek aztertu arte (2021eko hirugarren edo laugarren hiru hilabeteetan) ezin izango ditugu emaitza horiek jasota eduki.

### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Ikerlanak 2021eko uztailan aurkeztu behar dira eta, behin ikerlanak jasota eta Balorazio Batzordeak horiek baloratuta, deialdi honetan lortutako adierazleak ikusiko ditugu.



IVAPeko kalitatea kudeatzeko sistemaren helburu eta adierazleei dagokienez, honako datu horiek dauzkagu 2019-2020ko programa honetan:

ADIERAZLEA	AURREIKUSPENA	EMAITZA
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan argitaratu diren ikerlanen ehunekoa	%100	%0
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan aurkeztutako eskaeren ratioa	3	1,50
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan diru-laguntzei uko egingo ehunekoa	%0	%0
Ikerketa sustatzeko diru-laguntzen deialdiaren baitan liburutegian gordetako ikerlanen ehunekoa	---	%0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako ikerlanetarako "Jesús María Leizaola 2020" saria**

2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 2koa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, euskal autonomiarekin zerikusia izanik edo horren azterketarako eta sakontzerako balioa izanik, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako «Jesús María Leizaola» 2020 sarirako deia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena

Deialdia

Esleipena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

“Jesús María Leizaola” 2020 sariaren eginkizuna hauxe da: gure autonomia-sistemari buruz eta horren azterketarako eta sakontzerako balioa dituzten azterlanak ustatzea eta zabaltzea.

Sariak aukera ematen du gure sistema autonomikoak arlo juridikoan, ekonomikoan, historikoan, kulturean, finantzarioan eta beste arlo batzuetan dituen berezitasunei buruz egindako ikerketa-lanak zabaltzeko.

Halaber, ikerkuntzaren aldeko interesa sustatzeko egokia da aipatutako arlo horiek sakontzeko beharrianari erantzuten diolako eta etorkizuneko euskal autonomia garatzeko aproposa izan daitekeelako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurtengo deialdian saria hutsik gelditu da eta akzesita autonomiaren babesak jorratzen dituen ikerlan bati eman zaio. Ikerlan hori edizio prozesuan dago dagoeneko.

Horrez gain, aurtengo epaimahaiak proposatu du aurkeztutako beste ikerlan bi argitaratzea: bata euskal zuzenbide prozesalaren ingurukoa, eta bestea euskal erbestearen ingurukoa. Ikerlan bi horiek edizio prozesuan daude, fase ezberdinetan.





## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspen</u> <u>a</u>	<u>Emaitza</u>
Leizaola saria deialdira aurkeztutako hautagaien kopurua	3	3
Leizaola saria ematea	1	0
Leizaola saria akzesita ematea	1	1
EAEtik eta Nafarroatik kanpo bizi diren Leizaola sariaren hautagaiak	--	2
Leizaola deialdian aurkeztutako lanak, saririk gabekoak baina argitaratuak	1	2
Leizaola saria deialdian ezarritakoarekin bat datozen aurkezturiko lanak	100%	100%



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak egiten ari diren langileak ordezkatzeko diru-laguntzak (toki administrazioa)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2005eko azaroaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena. Agindu honen bidez, batetik, arautzen da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua, eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko diru-laguntzen arauak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2005006237>

Ebazpenak:

EBAZPENA, 2020ko urriaren 1ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei ordezkapenatarako dirulaguntzak ematen dizkiena.

<https://eu.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020004107>

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 4koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, eranskinean aipatzen diren udal-administrazioei ordezkapenatarako dirulaguntzak ematen dizkiena.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021000348>

## 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Udal-administrazioak diruz laguntzea, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan egonda eta partzialki edo guztiz liberatuta egonda, euren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna eskuratu arte euskara-ikastaroetara joaten diren langileak ordezkatzeko kostua finantzatzuz.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2020ko urtarrila-ekaina epealdia:

- Ordezkatutako ikasle kopurua: 1
- Erakundeak: 1
- Liberazio mota: osoa.
- Ordezkapenen kostua: 4.286,90 euro.

2020ko uztaila-abendua epealdia:

- Ordezkatutako ikasle kopurua: 4
- Erakundeak: 3



- Liberazio mota: osoa.
- Ordezkapenen kostua: 11.728,99 euro

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Ordezkapenentarako diru-laguntza eskatu duten erakundeen kopurua	10	3



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzeko laguntzak**

## 2.- Araua

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazio eta foru-administrazioko enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egiten duena.

85/2020 EBAZPENA, urriaren 22koa, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

86/2020 EBAZPENA, urriaren 27koa, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Hezkuntza Sailaren artean prestakuntza arloko sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

84/2020 EBAZPENA, urriaren 22koa, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko prestakuntza arloko lankidetzaren hitzarmena argitaratzea.

79/2020 EBAZPENA, urriaren 6koa, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetzaren hitzarmena argitaratzea..

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/07/2002730e.shtml>

## 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programa honen helburua da ahal den erakunde publiko guztietan prestakuntza-plan edo -programen ezarpena sustatzea eta finkatzea. Bestalde, aurkeztutako prestakuntza-plan edo -programek analisi edo diagnostiko batean oinarritu beharko dira.



## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Prestakuntza-planen kopurua: 28
- Parte-hartzaileen kopurua: 78.788
- Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua: 102

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen prestakuntza etengabeko garapenean eta egokitzapenean dauden kalitatezko zerbitzu publiko batzuk eskaintzeko ezinbesteko elementutzat hartzeak, eta, bestetik, EAEko administrazio guztiek aurrean dituzten aurrekontu-zailtasunak aintzat hartzeak, horiexek bultzatzen gaituzte Diru-laguntza Programa hau abian jartzera.

2020. urtea berezia izan da eta aurreikusitako emaitzak ez dira jaso pandemiak izan duen eragin zuzenaren ondorio, hala ere, hurrengo urtera begira, eskaera kopuruak aurreko urteetan izandako joera mantenduko dela uste da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Prestakuntza-planen kopurua	45	28
Parte-hartzaileen kopurua	70.000	78.788
Programan parte hartzen duten erakundeen kopurua	175	102